

BALIO PROPOSAMENA

Proposatzen dugun produktu hau, pertsona orok ilea garbitzeko kasko bat da. Bakarrik dauden pertsonentzat, ileapaindegietako langileentzat, bakarrik garbitzeko gai ez direnentzat... bideratuta dago produktu hau. Kasko honek, hainbat arazo ezberdin dituzten pertsonari irtenbide erraz eta eroso bat eskainiko die.

Kasko hau, higiene pertsonala bermatzeko ere baliagarria izango da. Gaixotasunak saihesteko eta orokorrean, itxura fisikoa zaintzeko ere balioko du.

Bestalde, argi eduki behar dugu higiena osasun psikikoarekin lotura duela, beraz garrantzitsua da higiene pertsonala zaintzea.

Hortaz gain, denbora aurrezteko ere oso baliagarria izango da. Adibidez, ileapaindegi batean bi bezero baldin badaude, ileapaintzailea bezero batekin lanean dagoen bitartean, beste bezeroari kaskoa jarri dakioke eta horrela denbora aurreztu dezake.

Gure produktuaren diseinua egiterako orduan, zenbait ezaugarri kontuan hartu dira, hala nola, bezeroen erosotasuna bermatzea. Produktua sortzeko erabili diren materialak ongi aztertuak eta egokiak izan dira kalitate hoberena lortzeko. Erosleen segurtasuna ere bermatzea gure lehentasunetako bat izan da, azken batean, gure bezeroek gure produktua segurtasunarekin erabili behar dutelako. Hortaz, gure produktuaren prezioa 350€ izango litzateke.

